

Iñaki Mendiguren

Aurkia eta ifrentzua

B

adirudi ekonomiari dagokionez –eta horren martxari estu, agian estuegi, lotuta ditugu geure ongizatea eta zoriona– garai ilun samarrak datozkigula... guri ere. Eta “guri ere” diot, zeren eta gurea oparotasunezko krisialditxo baina, baina munduan askoz ere gehiago dira sekula krisitik irteten ez direnak, gure mahaitik eror litezkeen apurren zain hil ala biziko kinka etengabe daudenak.

Gizarte garatuotako ezaugarria da, dena kontrolpean eduki eta erabateko segurtasuna nahi izatea, eta ez gaude prestaturik gorabehera, ezbehar, zorte txar edo ezuste-koetarako, ezta horiek berezkoak edo naturalak direnean ere. Ekonomiaren motelaldia dela, uholdeak direla... hondamendi guztien eragileak, erantzuleak eta errudunak aurkitu nahi izaten ditugu.

Baina egin ote zezaketen gobernuek eta administrazioek zerbaiteko datorkiguna saihesteko edo arintzeko? Ba, ziur asko, egin duten baino gehiago bai; baina eskatzen diegun beste, ez. Garbi samar ari da geratzen gobernuek uste baino gutxiago agintzen dutela ekonomian, eta beste botere batzuek ezartzen dietela legea politikariei. Honetaz oso argi hitz egin izan du Ignacio Ramonet-ek (ikus *Un mundo sin rumbo. Crisis de fin de siglo*, Madril, 1997, edo *Pensamiento crítico vs. pensamiento único*, Madril, 1998).

Agintariak artista dira oparoaldietan merezimenduak berenganatzen, guztia gobernuaren errape agortezinetik baletorkigu bezala; eta estualdietan, berriz, ezin trebeagoak dira, hauteskunde aurretik, benetako egoera “apaintzen”, eta hauteskunde ondoren, egiaren erantzukizuna –eta batez ere ondorioak– herritarron artean diluitzen. Dena den, gobernarien alde aurpegia ateratzeko, esan behar da askotan gehiegi eskatzen diogula politikari, eta honek ezin duela dena konpondu. (Besteak beste, honetaz eta honek politikarekiko sortzen digun etsipenaz idatzi zuen Eusko Ikaskuntzak saritu berri duen Daniel Innerarity bilbotar filosofoak *La transformación de la política* liburuan).

Hori aurkia. Eta ifrentzua? Ba, beste zenbait kasutan gobernuei askoz gehiago eskatu beharko geniekeela, beren esku dutelako gauzak hobeto egitea. Horren adibide garbi bat da niretzat Abiadura Handiko ‘Trenare-



DANI BLASCO

na (AHT). Lehenago ere esan nuen hemen: trenaren alde nago, tren-sistema berri baten alde bere kostu guztiakin, baina trenbide-proiektu zehatz honen zeharo aurka ere bai, eta ez dut ulertzen nola eman zaion eredu honi gure artean lehentasuna. Halere, tripa-ko min handiz, onartu beharrean nago proiektuak zilegitasun osoa duela eta oso demokratikoa dela, Eusko Legebiltzarraren chuneko handi-handi bat (lau alderdi nagusiek osatua) bere alde duelako. Hori aitortuta, ez dakit zergatik ari diren gauzak hain gaizki egiten: alegia, zergatik jokatzen den oposizio minoritario –baina garrantzitsu eta kualifikatuarekiko– horrelako harrokeria, mespretxu eta lotsagabekeria; zergatik ez den Legebiltzarretik kanpo askoz eztabaida eta debate patxadazko eta lasaiagorik egiten; zergatik dagoen horrenbeste propaganda ofizial eta ez informazio zehatzik; zergatik hain gardentasun gutxi proiektuak ukituriko herri eta jendeekiko (eta Ezkio-Itsasotik idazten dut hau!).

Nik ez dakit zergatik berriz zulo berean

sartu behar dugun hanka, zergatik ezin diren gauzak hobeto egin. Bai, badakit, erantzuna: hemen betiko fanatiko eroak dabiltzala setati beren bidean. Baina bada ordua galdetzeko ere, urtea joan eta urtea etorri, zer egiten dugun hain gaizki hemen ‘fanatiko eroek’ hain lur ongarritua aurkitzeko...

Lemoizko zentralarekin eta Leitzarango autobidearekin gertatuaren ondoren, nik ez dakit zergatik berriz zulo berean sartu behar dugun hanka, zergatik ezin diren gauzak hobeto egin. Bai, badakit, erantzuna: hemen betiko fanatiko eroak dabiltzala setati beren bidean. Baina bada ordua galdetzeko ere, urtea joan eta urtea etorri, zer egiten dugun hain gaizki hemen “fanatiko eroek” hain lur ongarritua aurkitzeko... ■